



IKASLE BAT KONFINATUA DAGOENEAN JARRAITU BEHARREKO PROTOKOLOA

Hurrengo dokumentuan, zuen seme-alabak konfinamendu egoeran daudenean jarraitu beharreko jarraibideak jaso ditugu, baina batez ere, egoera horrek ez duenean eraginik haien osasunean.

OROKORRAK

- Osasun onean eta lan egiteko gai diren ikasleen arreta bermatzeko sortu dugu. Ikasleak gaixorik badaude lehentasuna osasuna izango da.
- Ikaslea edo talde bat konfinatuak daudenean beraien ikasketa prozesua eta esparru emozionala zaindu beharko ditugu ikasketei jarraipena emanez.
- Ikaslea ongi badago ikastetxeko ordutegi bera egiten saiatu beharko du.

TUTOREAK

1. Ikasle bat konfinatzen dutenean, tutorea berehala harremanetan jarriko da familiarekin zer moduz dauden jakiteko. Ikaslea ondo badago eta beharrezko materiala ikastetxean utzi badu, tutoreak familiarekin adostuko du liburuen jasoketa (lagun edo familiakoak hitz ordua eskatuz).
Lanik ezin izango balu egin, laguntza emozionala eskainiko dio.
2. Tutoreak gelako irakasleei abisua pasako die INIKArekin bitartez, beste irakasleek konfinatutako ikaslearen jarraipena egin dezaten eta ikaskuntza prozesuarekin jarraitzeko.



TALDEKO IRAKASLEAK

1. Irakasle bakoitzak ikasle bakoitzari Antigua-Luberriko korreo elektronikoaren bitartez landuko dituen gaiak, etxeko lanak, irakurketa eta abar adierazi beharko dizkio eta zein plataformatik bidaliko dizkion: classroom, moodle...
2. Irakasle bakoitzak erabakiko du zein metodologia erabiliko duen ikaslearekin harremantzeko. Bideo deiren bat egin nahiko balu ere ikasleak irakaslearen gonbidapena jasoko luke.
3. Egin izan ez diren azterketak (COVID-19arengatik inguruan dugun egoera aztertu dugularik, eta itxialdi baten beldurrarengatik) mintegi bakoitzak erabakiko ditu noiz egin.

FAMILIAK

1. COVID-19arekin zerikusia duen guztia Covid 19ko arduradunari eta tutoreari jakinarazi beharko zaio (sintomak dituen, PCRren emaitzak, noiz bueltatuko den ikastetxera...) bestela ezinezkoa izango baita jarraipen zorrotza egitea.
2. Eskertuko genuke familiak ikasleari jarraipena egitea, etxean egotea tokatzen zaion denboraldi horretan.

Hezkuntza komunitateko pertsona guztien elkarlana oso garrantzitsua da: familiak, tutoreak, ikasleak, eta hezitzaileak.

Eskerririk asko zuen laguntzarengatik

Antigua-Luberrri BHI-ko zuzendaritza taldea